



EUSKAL
ITSAS
MUSEOA

MUSEO
MARÍTIMO
VASCO



GIPUZKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak eta Euskal Itsas Museok “Elkano-Urdaneta: ozeanoen aurkikuntza” erakusketa aurkeztu dute

- Elkanoren bigarren bidai ezezagunaren V. mendeurrena ospatzen da erakusketa honen bitartez; bidaia horretan, Andres Urdanetaren ekarpenari esker, mundu-mailako ozeano-nabigazioaren ateak ireki zituzten.
- Asteazkenean, abenduaren 4an, arratsaldean, egingo da erakusketaren inaugurazioa, Xabier Alberdi zuzendari zientifikoaren bisita gidatu batekin.

03.12.2025. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak eta Euskal Itsas Museok gaur **“Elkano-Urdaneta: ozeanoen aurkikuntza”** aldi baterako erakusketa aurkeztu dute, Juan Sebastian Elkanoren bigarren bidai ezezagunari eskainia. Erakusketa bihar irekiko da Donostiako portuko museoan eta 2026ko urriaren 4ra arte egongo da ikusgai.

Gaur goizean Euskal Itsas Museoan egin den prentsurrekoan, Goizane Álvarez Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirol Diputatuak, Xabier Alberdi Euskal Itsas Museoko Zuzendari Zientifikoarekin batera, azaldu duenez, erakusketa honen bidez Elkanoren Moluketarako bigarren bidaia oroitu nahi da, eta gaineratu du: “Elkanoren itsas lorpenen eta ekintzailatza oinordekoak gara, baita itsasora begira bizi diren gipuzkoarren hainbat belaunaldiren ondorengoak ere; beraz, erakusketa hau gaur egungo Gipuzkoak arbaso horiekin duen zor ikaragarri horren aitortza da”.

Euskal Itsas Museoko zuzendari zientifikoak, Xabier Alberdik, azpimarratu du: “Munduaren Lehen Itzuliaren ondoren, Elkanoren bigarren bidaia izan zen, hain zuzen, ozeanoen aurkikuntza-prozesurako bigarren pausua; hau da, nabigazio ozeaniko globalaren eta mugarik gabekoaren bigarren kapitulua, Andres de Urdaneta bere ikasleak gauzatutakoa, eta zalantzarik gabe, Euskal Herriak Gizateriaren Historiari egindako ekarpenik handiena dena.

Erakusketak zeharbide ozeaniko hau nola prestatu zen azaltzen du, eta Andres Urdanetaren papera nabarmentzen du, Ekialdeko eta Mendebaldeko jakintza nautikoen arteko loturan giltzarri izan zena, horri esker ireki baitzen nabigazio globalerako bidea.

Bidaia haren historia kontatzen duten maketak, pinturak eta dokumentuak daude ikusgai Donostiako portuko dorretxean. Erakusketak Gordailua, Legazpi Dorretxea, Arantzazuko Santutegia, San Telmo Museoa eta Ordiziako Udalaren funtsetako 30 pieza inguru biltzen ditu, baita Madrilgo Untzi Museoaren eta Simancaseko Artxibo Nagusiaren erreprodukzioak ere.



EUSKAL
ITSAS
MUSEOAK

MUSEO
MARÍTIMO
VASCO



GIPUZKOA

Horretaz gain, material interaktiboekin, jolas hezitzaileekin eta irakurketa-eremu batekin espazio didaktiko bat sortu du museoak, gazteei zein helduei zuzendua eta erakusketaren bisitaren ondoren modu independentean ibiltzeko pentsatua.

Azkenik, familientzako bereziki diseinatutako koaderno bat ere badago, erakusketako edukiak hobeto ulertzeko eta hausnarketa sustatzeko.

Ekialdeko eta mendebaldeko ezagutza nautikoen elkar-trukea

Erakusketak 1525ean Garcia Jofre de Loaisaren agindupean eta Juan Sebastian Elkano pilotu nagusi zelabA Coruñatik abiatu zen espedizioa aurkezten du. Portuko Museoak Elkanore iradokizunak jarraituz bigarren zeharkaldi honetarako egindako prestaketa-lan zehatza erakusten du, azkenean amaiera tragikoa izan zuena.

Andres Urdaneta, Elkanoren dizipulua eta XVI. mendeko erronka nautiko handiaren konponbidean funtsezkoa den pertsona hartzen du ardatz gisa Euskal Itsas Museoak. Moluketara iritsi zenean eta Indonesian eman zituen ia bederatzi urteetan, bertako nabigatzaileengandik ikasi zuen eta Ekialdeko eta Mendebaldeko jakintza nautikoak batu zituen.

Itsas programazio zabala

Erakusketarekin batera, Euskal Itsas Museoak diseinatutako jarduera-programa zabala izango da, helduentzako eta familientzako topaketak, bisita gidatuak eta tailerrak egingo dira 2026ko urtariletik aurrera.

Halaber, abenduaren 4an, ostegunean, 18:30ean, publiko zabalarentzako erakusketaren inaugurazioa egingo da, Xabier Alberdi zuzendari zientifikoak gidatutako doako lehen bisita batekin, eta ondoren mokadutxo bat bertaratutakoentzat.

Informazio guztia eta Museoaren jardueretarako izen-emateak web orriaren bidez edo komunikazioa@itsasmuseoa.eus postaren bidez egin ahal izango dira.

“ELKANO-URDANETA: ozeanoen aurkikuntza”

2025eko abenduaren 4tik 2026ko urriaren 4ra

Asteartetik larunbatera: 10:00–14:00 / 16:00–19:00

Igande eta jai-egunetan: 11:00–14:00 / 16:00–19:00

Astelehenetan itxita.

El Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Museo Marítimo Vasco presentan la exposición “Elkano-Urdaneta: el descubrimiento de los océanos”

- La muestra pretende dar a conocer y conmemorar el quinto centenario del desconocido segundo viaje de Elkano, que con la aportación de Andres de Urdaneta, contribuyó a lograr la navegación oceánica global.
- El jueves, 4 de diciembre, por la tarde se celebrará la inauguración de la exposición con una primera visita guiada gratuita de la mano del director científico Xabier Alberdi.

03.12.2025. El Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Museo Marítimo Vasco han presentado hoy la exposición temporal **“Elkano-Urdaneta: el descubrimiento de los océanos”**, dedicada al poco conocido segundo viaje de Juan Sebastián Elcano. La muestra, que abre sus puertas mañana en el museo del puerto donostiarra, podrá visitarse hasta el 4 de octubre de 2026.

En una rueda de prensa, que ha tenido lugar esta mañana en el Museo Marítimo Vasco, la Diputada de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes de la Diputación Foral Goizane Álvarez ha explicado que mediante esta exposición se quiere conmemorar el segundo viaje hacia las Molucas de Elcano y ha añadido que “Somos herederos de los logros marítimos y del espíritu de emprendimiento de Elcano y de tantas generaciones de guipuzcoanos y guipuzcoanas volcadas al mar, de manera que esta muestra consiste en un reconocimiento de esa enorme deuda que la Gipuzkoa actual tiene contraída con esos antepasados.”

El director científico del Museo Marítimo Vasco Xabier Alberdi destaca que “Después de la Primera Vuelta al Mundo, el segundo viaje de Elcano fue, de hecho, el segundo capítulo del proceso de descubrimiento de los océanos, es decir, de la navegación oceánica global y sin límites materializado por su pupilo Andrés de Urdaneta y que constituye, sin duda, la mayor aportación realizada por el País Vasco a la historia de la Humanidad.”

La muestra explica cómo se preparó esta travesía transoceánica y destaca el papel de Andrés de Urdaneta, figura clave en la unión de los saberes náuticos de Oriente y occidente, gracias a la cual se abrió el camino hacia la navegación global. La Casa Torre del puerto donostiarra exhibe maquetas, pinturas y documentos que relatan aquel viaje, en una muestra de unas 30 piezas procedentes de Gordailua, Legazpi Dorretxea, el Santuario de Arantzazu, el San Telmo Museoa y el Ayuntamiento de Ordizia.

Además de esto, el museo ha creado un espacio didáctico con materiales interactivos, juegos educativos y un área de lectura, dirigido tanto al público joven como al adulto y pensado para ser recorrido de manera independiente tras la visita a la exposición.

Por último, cuaderno especialmente diseñado para familias para facilitar la comprensión y fomentar la reflexión sobre los contenidos explicados en la exposición.

La unión de los conocimientos náuticos orientales y occidentales

La exposición presenta la expedición que partió de A Coruña en 1525 bajo el mando de García Jofré de Loaisa, con Juan Sebastián Elcano como piloto mayor. El Museo del Puerto muestra el minucioso trabajo de preparación realizado por Elcano para esta segunda travesía, que finalmente tuvo un desenlace trágico.

El Museo Marítimo Vasco aborda el viaje desde una nueva perspectiva centrada en Andrés de Urdaneta, discípulo de Elcano y figura esencial en la resolución del gran reto náutico del siglo XVI: el Tornaviaje. Su llegada a las Molucas y sus casi nueve años en Indonesia le permitieron aprender de los navegantes locales y unir los saberes náuticos de Oriente y Occidente.

Una programación marítima

La muestra irá acompañada de un amplio programa de actividades diseñado por el Museo Marítimo Vasco, que incluirá encuentros, visitas guiadas y talleres para adultos y familias a partir de enero de 2026.

Asimismo, el jueves 4 de diciembre, a las 18:30h, se celebrará la inauguración de la exposición para el gran público, con una primera visita guiada por el director científico, Xabier Alberdi, de forma gratuita, seguida de un lunch para las personas asistentes.

Toda la información y las inscripciones a las actividades del Museo podrán realizarse a través de la página web o mediante el correo komunikazioa@itsasmuseoa.eus.

**“ELKANO-URDANETA: el descubrimiento de los océanos” Del 4 de diciembre de 2025
al 4 de octubre de 2026**

De martes a sábado: 10:00-14:00 / 16:00-19:00. Domingos y festivos: 11:00-14:00 / 16:00-19:00. Lunes cerrado.